

AURREALDEA BETETZEKO OHARRAK: KODEAK

(1) Datu osatugabeak edo okerrak adierazteak ordainketa atzeratu edo ezinezko egin dezake.

(2) Bat etorri behar dute NANean (adierazi azkeneko letra), pasaportean edo erabilitako identifikatzailean jasotakoekin.

(3) ENPRESAREN JARDUERA EKONOMIKOA (apirilaren 13ko 475/2007 ED, 2007ko apirilaren 28ko EAO)

A- Nekazaritza, abeltzaintza, ehiza, basozaintza eta arrantza	J- Informazioa eta komunikazioak
B- Erauzketa-industriak	K- Finantza- eta aseguru-jarduerak
C- Manufaktura-industriak	L- Higiezineta jarduerak
D- Energia elektrikoa, gasa, lurrina eta aire egokitua hornitzea.	M- Jarduera profesional zientifiko eta teknikoak
E- Ur-hornidura, saneamendu-jarduerak, hondakinen kudeaketa eta deskontaminazioa	N- Administrazio-jarduerak eta laguntza-zerbitzuak
F- Eraikuntza	O- Herri-administrazioa eta defentsa; nahitaezko gizarte-segurantza
G- Handizkako eta txikizkako merkataritza, ibilgailu motordunen eta motoziklet konponketa	P- Hezkuntza
H- Garraioa eta biltegitratzea	Q- Osasun-jarduerak eta gizarte-zerbitzueta jarduerak
I- Ostalaritza	R- Jolaserako eta entretenimendurako jarduera artistikoak
	S- Bestelako zerbitzuak

(4) ENPRESAREN TAMAINA

0 - 0-24 langile	1 - 25-49 langile	2 - 50-99 langile
3 - 100-249 langile	4 - 250-499 langile	5 - 500-999 langile
6 - 1.000-2.499 langile	7 - 2.500-4.999 langile	8 - 5.000 langile edo gehiago

(5) Soldatak Bermatzeko Funttsaren ERABILTZAILEREAREN KODEA. Idazkaritza Nagusiak emandakoa bada bakarrik beteko da, interesdunak edo ordezkari gisa dihardutenek hala eskatuta.

(6) Transkribatutako datuei dagokien kontua eskatzaileak ordainketa egiteko onartutakoa izango da, legezko ondorio guztietarako. Diru-sartzea egiaztatutakoan, ordainketa egin dela ondorioztatuko da (Kode Zibilaren 1157 art.). Banku-transferentziaren bidez egingo da ordainketa. Salbuespen gisa, teke izendunaren bidez egin ahal izango da, Idazkaritza Nagusiak onartu ondoren.

AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK

GENERIKOAK

1.- **Eskabidea**, indarreko eredu ofizialean, behar bezala beteta eta sinatuta.

2.- Eskatzailearen NANA edo nortasun-agiria, badin eta eskatzaileak esplitzitu adierazten ez badu diharduen administrazioak agiri hori Barne Ministeriotik eskuratzea nahi duela.

3.- Ordezkararen bidez jardunaz gero: **ordezkaritza** ematen duen jatorrizko agiria edo haren kopia, lekukotasuna emanda. Kontu korrontearen titularra bada, agirian argi eta garbi adierazi beharko da horrek Soldata Bermatzeko Funtsetik kobratzeko ahalmena duela.

BERARIAZKOAK

4.- **SOLDATA PRESTAZIOAK**: Adiskidetze judicial edo administratiboaren epai edo egintza irmoak, kreditua eta, lehiaketa-prozeduraren kasuan, lehiaketa-administrazioaren ziurtagiria onartzen dituztenak.

5.- **KALTE-ORDAINEN PRESTAZIOAK** eta/edo **IZAPIDETZE SOLDATAK**: Adiskidetze judicial edo administratiboaren epaia, autoa edo egintza irmoak, eta, lehiaketa-prozeduraren kasuan, lehiaketa-administrazioaren ziurtagiria.

6.- **KALERATZE OBJEKTIBOA**. - % 40KO KALTE-ORDAINA.

Eskabidea **enpresak** egiten badu:

- 1.- Enpresaren idatzizko jakinarazpena, langileari zuzendua, kaleratzearen arrazoia adierazten duena (**kaleratze-gutuna**).
- 2.- Langileak Langileen Estatutuan legez aurreikusitako **kalte-ordaina** benetan **jaso duela** egiaztatzen duen agiria.
- 3.- Langileak kaleratu aurreko hiru hilabeteetan jasotako soldataren egiaztagiria: **nominak**, enpresaren eta langilearen sinadurarekin.
- 4.- Lanean aritutako azken hiru hilabeteetan Gizarte Segurantzari eginiko kotizazioen agiria.
- 5.- Enpresaburuaren NANaren fotokopia, pertsona individuala baldin bada. Enpresaren burua erakunde juridiko bat bada, honakoak aurkeztuko dira: enpresaren IFK eta sozietatearen eskriturak, edo ordezkaritza egiaztatzen duen ahalordea.
- 6.- Adiskidetze-aktan edo epai judicialen kaleratzea objektibotzat joz gero, agiri hauek aurkeztuko dira.

Eskabidea **langileak** aurkezten badu: Langileak edo langileek sinatutako zinpeko adierazpena, kaleratzearen arrazoiaren aurkako errekamaziorik ez duela egin adierazten duena, eta eskatzailea enpresa den kasurako eskatzen diren gainerako agiria (kalte-ordaina jaso izanari buruzkoa eta enpresaren IFKari/NANari dagozkionak izan ezik).

GOGOETA OROKORRAK

Agiri guztien bi ale aurkeztu behar izango dira, jatorrizkoarekin batera, konpultsatzeko. Ebazpen judicialen kopiek lekukotasuna emanda egon behar izango dute. Agiri gehigarriak eskatu ahal izango dira (adiskidetze-akta edo -txartela, demanda, gauzatze-autoa, etab.), nahitaezko agirietan jasotako edukia nahikoa ez denean edo horiei lotzen zaienean.

Eskabidea ordezkariak sinatuta dagoenean, bere nortasuna egiaztatu behar izango du hark.

Eskabideak Soldata Bermatzeko Funttsaren Administrazio Unitatearen egoitzan edo azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan aipaturiko edozein bulego edo erregistrotan aurkeztuko dira, arau horretan ezarri bezala.

Formulario honek datu pertsonalak biltzen ditu, Soldata Bermatzeko Funttsaren Idazkaritza Nagusiaren titulartasuneko fitxategi batekoak. Interesdunak baimena ematen dio titular horri modu automatizatuan trata ditzan, eskabidearen arrazoiaren ondoriozko eginkizunak kudeatzeko xede bakarrekirekin eta (hala badagokio), finantza-erakundeekin, Espainiako Bankuari, Ogasun Ministerioari, Zerga Administrazioako Estatuko Agentziari, Botere Judizialeko Kontseilu Orokorrari, Herri Administrazioen Ministerioari eta Gizarte Segurantzako Diruzaintza Nagusiari laga diezazkien, kudeaketa burutze aldera.

Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren arabera (14ko EAO), datuak kontsultatu, zuzendu, ezabatu eta aurkartzeko eskubidea baliatu ahal izango du Soldata Bermatzeko Funttsaren idazkari nagusiari zuzendutako idazki baten bidez (helbidea: Sagasta kalea 10, Madril - 28004).

AURREALDEA BETETZEKO OHARRAK

- Prestazio-eskabidea enpresak egiten duenean (Langileen Estatutuaren 33.8 artikuluko kasuak) eta gutxienez 2 langileri eragiten dienean bakarrik bete behar da eranskin hau.
- Beharrezkoak diren agiri erantsi guztiak erabiliko dira.
- Eskabideak langile bati bakarrik eragiten badio, nahikoa da *eskabide-eredua* betetzea, eranskinik gabe.
- Identifikazio-zenbakiak bat etorri behar du NANean (adierazi azkeneko letra), AIZn, lan-baimenean edo pasaportean jasotakoekin.
- Datu osatugabeak edo okerrak adierazteak ordainketa atzeratu edo ezinezko egin dezake.